

ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN

ZIABOGA, KORRONTE NAGUSIAK EZ DEZAN ERAMAN



LARRUN #310

TXIKIENAK LEHIA GOGORRETIK BABESTEKO MODU BAT

EGILEA | **JON TORNER** AZALA | **XABIER SAGASTA**

Aurrerantzean, Gipuzkoako klub batean jokatu nahi duen 8-12 urteko umeak ez du derrigorrez Eskola Kirolean parte hartu beharrik izango, EAEko Auzitegi Nagusiak hala ebatzita. Multikirol ereduaren kontrako errekurtsua jarri duen familiaren hitzetan, ez da bidezkoa erakundeek inoren seme-alabek denbora librean zertan pasa behar duten “inposatzea”.

Epaileek hartutako erabakiaren abaroan hainbat pertsonak salatu du gauza bera, umeak nahi duen kirola aukeratzeko “askatasuna” aldarrikatzearekin bat. Eta agian ezziren termino horietan mintzatuko, baina programaren helburu hezitzaile

eta integratzaileak defendatzen dituzten ikastetxe, udal, klub, federazio edota instituzioek ere uste dute ezinbestekoa dela Eskola Kirola egungo beharretara egokitzea.

Epaia heldu da Gipuzkoako Diputazioak, eragileekin elkarlanean, urte eta erdi zeramanean Eskola Kirola zaharberritzeko prozesuan murgilduta, lehiari – errendimenduari – lotuagoak dauden kirol elkarteek – futbolekoek bereziki – duten erakarpen ahalmenaren aurrean, “umeen ongizatea” ardatz izango duen eredu motibagarria garatzeko. Abiatu berri den ikasturtea giltzarria izango da.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA - ARGIAren 2.932 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAIALEN ARANA

2025eko Irailaren 28a



KAMPUS PRODUCTION / PEXELS

Gipuzkoako araudiak kirol batzuegan zuen eragina (futbola, eskubaloia, saskibaloia, boleibola, errugbia, arrauna, ziklismoa...), gainerakoetan aritzeko (pilota klub batean, adibidez), ez zen ezinbestekoa Eskola Kirolean parte hartzea.

Egiari zor, uste genuen gainerako euskal lurraldeetako gurasoek entzunak izango zituztela Gipuzkoako Eskola Kirol ereduari buruzkoak, batez ere programaren derrigortasuna ezbaian jarri duen epaia plazaratu eta gero, baina konturatu gara multikirol eskaintzaren berezitasunak ezezagunak zaizkiola askori. Hortik hasiko gara, beraz.

Gaur arte, Gipuzkoan, klub batean aritu nahi zuten 8-12 urteko umeek Eskola Kirola egin behar zuten ezinbestean, Multikirol programan izena emanda. Nafarroan bezala Araban eta Bizkaian ere, ez da horrelakorik gertatzen, Kirolaren Euskal Legeak baitio EAEko hiru diputazioek jarduera ludiko eta kirola-nitza “bermatu” behar dutela –ume orok izan dezan sarbidea diziiplina guztietara–, baina ezin dutela inor “derrigortu”, Auzitegi Nagusiaren ebazpenean jasoa dagoenez.

Urritik maiatzera bitartean egiten da Eskola Kirola, eta ikasturte osoa hartzen du. Zortzi hilabetez hainbat kirol egiteko aukera dute umeek –eskolaz kanpoko ekintza gisa–, nagusi diren futbola, saskibaloia eta eskubaloiaz gain. Aste batean landuko dute patinajea, hurrengoan errugbia, atletismoa, pilota, arrau-

na, ziklismoa, borroka-jolasak, herri kirolak... Helburua da adin batetik beherako umeek, ume guztiek, ahalik eta jarduera gehien egitea, haien garapen integralerako egokiagoa baita hori, kirol batean goizegi espezializatzea baino, ereduaren sustatzailerik diotenez. Nork bere ikastetxean “entrenatzen” du astean zehar, eta euren arteko partida edo jardunalditopaketak larunbat goizean egin ohi dira, eskoletako patio zein udal instalazioetan.



ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK DENBORA ASKOTXO HARTZEN DUTE DAGOENEO, ETA EKUAZIOAN ESKOLA KIROLA SARTZEAK BIZITZA KONPLIKATU BESTERIK EGITEN EZ DUELA USTE DU GURASO ASKOK

KIROLA ULERTZEKO BI MODU

Osagai mordoa du aferak. Esaterako, eskolaz kanpoko jarduerak denbora askotxo hartzen dute dagoeneko, eta ekuazioan Eskola Kirola sartzeak bizitza konplikatua besterik egiten ez duela uste du guraso askok. Lehiari lotzen zaion “errendimendua” ere maiz azaleratzen da, forma batean ala bestean; agian ez dugu lau haizeetara zabalduko, baina sarri antzean nahi duguna da umeak –edo familiak– aukeratu duen kirol horretan geroz eta trebeagoa izatea, eta horretarako klub batean aritzea hobeto, noski.

Bateko eta besteko gurasoei galdetuta, ohartu gara anitzak direla Eskola Kirola egituratu eta funtzionatzeko moduak; anitzak tokian toki erroto-tako kirolak –nahiz eta ezbaierik gabe futbola den nagusi–; anitzak ikastetxeak eta anitzak kirol klubak, balore hezitzaileen eta errendimenduaren arteko dantzan erritmoa nork eramango. Eskola Kirolak oinarritzat du haurraren ongizate integrala (fisikoa, emozionala eta soziala), eragile orok babesten ditu baliook, “baina”...

Pasaiako familia batek multikirol programaren aurkako errekurtsioa jarri, EAEko Auzitegi Nagusiak haren aldeko epaia eman –urtarrilaren 22an–, eta ondorengo iritziz zaparra-





Mistoa, bai ala ez?

Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol teknikari Oihana Zunzunegiren hitzetan, “eredu parekide bat lortzeko ez da nahikoa eredu mistoa sortzea”, alegia, neska eta mutikoak besterik gabe nahastea. “Gauza gehiago hartu behar da kontuan: zein kirol mota sustatu eta nola, hezitzaileen formazioa, aurrez egindako lanketa...”.

dak demostratu du pentsatu baino jende gehiago zela kritikoa Eskola Kirolarekin, ezinbestean klubetako jardunaren mugarri izan beharragatik batzuetan, oinarritzat dituen edo izan beharko lituzkeen balioak praktikara eramateko moduagatik besteean. Umeak nahi duen kirola aukeratzeko “askatasuna” batetik, helburu hezitzaile eta integratzaileak bultzatzen dituen eredia bestetik, aferak eztabaida berpiztu du.

Berpiztu diogu, duela 30 urte ere bazelako ika-mikarik, “parte hartzea” edo “errendimendua” lehenetsi. Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Diputazioko Kirol zuzendaria izan zen 2003-2011 artean, eta Bergarako Udalean kirol teknikari moduan aritu zen lehenago –gaur egun ere horretan dihardu–, multikirol programaren (E1) sustatzaileetako bat izanik. “Garai hartan oposizio handiena futbolearen zegoen”, kontatu dio *Noticias de Gipuzkoa* egunkariko kazetari Mikel Mujikari: “Ez zuten esaten multikirol programaren aurka zeudenik. Haiek zioten: ‘Adin batera heltzean beste batzuen aurka [Araba edo Bizkaiko umeen aurka, Ugarteburuk beste elkarrizketaren batean aditzera eman duenez] lehiatzen hasiko dira, eta ez dute nahikoa denborarik izan kirol honek eskatzen dituen gaitasun bereziak garatzeko”. Akordio bate-

ra heltzea helburu, 8-12 urteko umeentzako kirol eskolak sortu ziren klubetan, “harrobi lanaren” oinarri izateaz gain diru-iturri aski inportanteak ere badirenak, kuotei erreparatzen badiegu. Kirolaren eta klubaren arabera aldatu egiten dira zenbatekoak, baina denak dira Multikirol programa baino garestiagoak; muturreko adibidea jartzearen, badira urtean 365 euro kobratzen duten futbol taldeak.



**LEHIARI LOTZEN ZAION
“ERRENDIMENDUA” MAIZ
AZALERATZEN DA, FORMA
BATEAN ALA BESTEAN; AGIAN
EZ DUGU LAU HAIZEETARA
ZABALDUKO, BAINA SARRI
ANTZEAN NAHI DUGUNA
DA UMEAK –EDO FAMILIAK–
AUKERATU DUEN KIROL
HORRETAN GEROZ ETA
TREBEAGOA IZATEA, ETA
HORRETARAKO KLUB BATEAN
ARITZEA HOBETO, NOSKI**

“Legeak dio umeak 12 urte izan arte kirol jarduna anitza izatea lehenetsi behar dela”, dio Ugarteburuk: “Aldaketak egin eta egokitzea beharrezkoa da, baina multikirola bermatzeko derrigortzea beste biderik ez dago. Zerbait arautzen den bakoitzean askatasuna mugatzen da. Kontua zera da: Merezi al du? Egiten duzuna proportzionala al da? Nire ustez bai. Legeak dio ikastetxeen eskaintzak multikirol ereduari heldu behar diola, eta administrazioek bitartekoak jarri behar dituztela hura betetzeko. Derrigortzen ez bada, nola lortu? Funtsezkoa izango da kalitatezko eta ongi egituratutako Eskola Kirola eskaintzea”.

IRIZPIDEAK BATERATZEKO PROZESUA ABIAN

Esan dugu jada, badira ia 35 urte Eskola Kirolaren eredia Gipuzkoan abian jarri zela. Agintean alderdi bat edo beste izan, guztiek eutsi diote programaren izaerari, eta gaur egun Kirol diputatua den Goizane Alvarezek (PSOE) ere haren alde lanean jarraitzeko konpromisoa agertu du –Eskola Kirolaren bueltako eragileak bidelagun hartuta–, berrestearekin batera erakunde publikoei dagokielako kirola egiteko eskubidea babestu eta sustatzea.

Haren hitzetan, Eskola Kirolak osatzen duen sistema elitista eta baztertzailerak indar handiagoa hartzeko, “talentua dutenen inguruan egituratua eta emaitza edo lorpenetan oinarritua”. Alegia, “on eta txarren artean segregatuko litzateke”, aintzat hartuta, gainera, klub batean izena ematerik ez duen umea –egoera sozioekonomikoagatik, adibidez– eredu horretatik kanpo geratzen dela, guztiek izan behar dutenean “kirola egiteko eskubidea”, edozein izanik ere haien kirol-maila, maila sozio-ekonomikoa, bizitokia edo eskolatze-lekua, diputazioak nabarmendu duenez: “Helburu hori lortzeko, udal, federazio, ikastetxe eta klubekin dihardu lankidetzan Foru Aldundiak, eta diru kopuru handia bideratzen du urtean”.

Eredu malguagoa

Irailaren hasieran Gipuzkoako Diputazioak iragarri zuen, besteak beste, kirol klubetako benjamin (2016-17an jaioetakoak) eta alebin (2014-15) mailako taldeek aukera izango dutela lurraldeko edozein talderen aurka jokatzeko, hurbilekoetara mugatu ordez. “Salbuespeneko kasuetan”, gainera, Araba edota Bizkaira ere joan ahal izango dira lehiatzen. Ikusteke dago neurria baliagarria izango ote den futbola ez beste kirolak hauspotzeko, adibidez.

Eskema ekonomikoa osatze alde-
ra: Foru Aldundiak multikirol programa garatzeko duen diru-partidatiko (1,2 milioi euro inguru pasaden ikasturtean) udal bakoitzak dagokiona jaso ohi du, haiek herriko ikastetxeen artean banatzen dute –izen emate edo beharren arabera–, eta eskolek erabakitzen dute ume bakoitzagatik zein kuota kobratu, gastuak (hezitzaileak, autobusak...) aintzat hartuta. Zentzu horretan, diputazioaren asmoa da 2026-27 ikasturtetik aurrera Eskola Kirolaren kuota urtean 60 eurokoa izatea ikasle guztientzat –gaur egun 102 euro ordaintzen dira batez beste–, izena dohainik eman ahal izango duten “ikasle zaurgarrientzat” salbu.

Multikirol programa berriaren oinarriek “sendo eta malguak” izan behar dutela dio Alvarezek, kriterioak bateratzea ezinbestekoa dela, baina ikastetxe eta herri bakoitzeko errealitatea aintzat hartuta. EAEko Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurka Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu du diputazioak, eta hark zer erabaki zain dago orain –abian den ikasturtea amaitu artean, ziurrenik, ez da nobedaderik izango–.

HIRU KIROL NAGUSITASUNA

Bazter oro hartu duen futbolaren eta gurasoen gainera aurreiritziek kutsatuta gaudelako-edo, harritu gintuen irakurtzea Eskola Kirolaren aurkako helegitea aurkeztu zuen Pasaiko familiak ez duela seme-rik futboleko, Askatuak saskibaloitaldean ari diren bi alaba baizik. “Zaharrena, gustuko ez zuen zer-bait egiten ari zen eskola kirolean, eta, gainera, behartuta; ez neukan beste aukerarik”, zioen haren aitak *Diario Vasco*-n. Hogeita bost urtez entrenatzaile aritu den gizonak dio multikirolaren kontzeptua “ongi” iruditzen zaiola, baina, batetik, uste du monitore batzuk ez daudela nahikoa prestatuta eta entrenamendu-saioetan ez dela “ganorarik”; eta,

bestetik, seme-alaben entrenamenduak, eskolaz kanpokoak eta gainerakoak uztartzeak “estresa” eragiten duela. “Nor da diputazioa, nire seme-alabei esateko haien denbora librean zer egin behar duten?”, galdetu du. “Gu etxean arduratzen gara kirolaren balio eta onurak irakasteaz, familiari dagokio hori”.



**ERRUGBI FEDERAZIOKO
ZUZENDARI TEKNIKO XABIER
CASTAÑOK, ESKOLA KIROL
EREDU BERRIAK AINTZAT
HARTU BEHARREKOEN
ARTEAN, “MONITOREEN
KALITATE ETA FORMAZIOA”,
FAMILIENTZAKO “KARGA
EKONOMIKOA” EDOTA
HIRU KIROLEK (FUTBOLAK,
SASKIBALOIAK ETA
ESKUBALOIAK) DUTEN
NAGUSITASUNA AIPATU DITU**

Pasa den martxoaren 20an, *Gipuzkoako kirol-hastapeneko ereduaz* aztertze eta baloratzeko ponentzia egin zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Institutioetako eta hezkuntza zein kirol arloko hainbat eragilek hartu zuen hitza, tartean Gipuzkoako Errugbi Federazioko zuzendari tekniko Xabier Castañok. Eskola Kirol eredu berriak aintzat hartu beharrekoen artean, “monitoreen kalitate eta formazioa”, familientzako “karga ekonomikoa” edota hiru kirolek (futbolak, saskibaloiak eta eskubaloiak) duten nagusitasuna aipatu zituen

hark ere bai, nahiz eta eskaintzaren aniztasuna defendatu. Hain justu, legea sortu zen kirol minorizatuak babesteko; “futbolaren aurkako neurria izan zen”, zuzenduko gaitu bakarren batek, ironiaz gehitzeko ederki bete duela helburua.

Zarauzko kasua jarri zuen adibide moduan Castañok: “Eskola kirolak dituen 24 jardunaldietatik hamabitan egiten dira futbola, saskibaloia eta eskubaloia, eta gainerako egunetan dozena bat inguru jardura desberdin. Eta monitoreen formazioa ere bereziki hiru kirol horietara dago bideratuta”. Bada azpimarratzea merezi duen gauza bat: diputazioak jardura bakoitzerako gutxienekoak markatzen ditu, eta hiru “talde-kirol hegemonikoek” programazio osoaren %53 edo gehiago bete behar dutela dio, eragileekin (udal, ikastetxe, klub eta federazioekin) batera lantzen ari den *MK-ren oinarrizko egituraketa baterako irizpideak* zirriborroan jasota dagoenez.



**KIROL DIPUTATU GOIZANE
ALVAREZEN HITZETAN,
ARRISKUA DAGO
ERRENDIMENDURA BEGIRAKO
“SISTEMA ELITISTA ETA
BAZTERTZAILEAK” INDAR ARE
HANDIAGOA HARTZEKO,
“TALENTUA DUTENEN
INGURUAN EGITURATUA ETA
EMAITZETAN OINARRITUA”.
ALEGIA, “ON ETA TXARREN
ARTEAN SEGREGATUKO
LITZATEKE”**

“ASKATASUNAREN” IZENEAN

Funtsean, EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi duena da Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin duela klub batean aritu nahi duen 6-12 urte arteko umea Eskola Kirola egitera derrihortu, diputazioaren argumentuak (espezializazio goiztiarraren arriskuei edota umeen garapen integrari dagozkionak) ontzat ematen dituen arren, nahiz eta gehitu: “Adinez txikikoaren eta gurasoen iritzia aintzat hartu behar da, espezializazio goiztiarra bezain arriskutsua izan daitekeelako multikirolak eragiten duen dispertsioa, talentua gal daitekeen heinean. (...) Norbanakoaren askatasunaren esparruan, kirola libreki praktikatzek izan behar du lehentasuna”.

“Aldundiak ez du inoiz ezer inposatu”, azaldu digute Gipuzkoa Kirola sailetik: “Errespetatu egiten dugu, noski, hurrek gustuko kirola aukeratzeko eta gurasoek beren seme-alaben kirol-heziketaren inguruan daukaten askatasuna. Kirol-

Futbola, saskibaloia eta eskubaloia dira nagusi Eskola Kirol programan. Gainerako diziplinak gehiago sustatu beharko lirakeela uste du hainbat eragilek, denbora eta “kalitate” aldetik.


hastapena arautu dugu irizpide tekniko eta ebidentzia zientifikoetan oinarrituta, adin txikikoak babes-teko espezializazio goiztiarrak edo salerosketek dakarten arriskutik. Horretarako funtsezkoa da multikirola sustatzea eta kirolaz gozatzen erakustea, euren arteko desberdintasunak apaldu eta kirola egiteko aukera haur guztiek izan dezaten bermatzearekin bat”.

Bestetik, epaiak dio, nahiz eta Araban eta Bizkaian ere multikirol programa sustatzen den, lurralde horietan hautazkoa dela, Kirolaren Euskal Legeak ez duelako esaten diputazioek jardura ludiko eta kirolanitz “derrigortu” behar dutenik, multikirol eskaintza “bermatuko” dutela baizik. Gipuzkoan indarrean den araudiak homogeneousazioa apurtzen duela ebatzi du Auzitegi Nagusiak, eta osagai inportantea da hori, 8-12 urteko umeen gaitasun edo errendimenduz ari garenean ere, Arabara eta batik bat Bizkaira begira bizi garelako gipuzkoar ez gutxi, han “serioago” entrenatzen dutelako –“futbol klubetan, nabarmen”– eta alebinitara heltzean “alde handia” dagoelako bateko eta beste neska-mutilen artean. Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente Manu Diez ere kexu agertu da lurraldeen artean dauden desberdintasunak direla-eta: “11 urteko ume gipuzkoarrek 9-12 partida jokatzen dituzte urtean, eta 30 arabar eta bizkaitarrek”.

MONITOREEN KUALIFIKAZIO ETA LAN BALDINTZAK

Epaiaren bueltan galdetuta, hurbilean dauzkagun gurasoek ez dituzte “inposizioa” eta “askatasuna” moduko terminoak azaleratu. Lehenago aipatuko dira denbora falta, umeen “motibazioarekin” harremana duen hezitzaile edo monitorean jarduna, diziplina bat ala bestelantzeko dagoen borondatea... Eta, esan dugu, ebazpenak aukera eman

du horiez guztiez eztabaidatzeko, nahiz eta herri askotan lehenagotik ere ari ziren ereduari bueltaka, izan Oarsoaldean, Buruntzaldean, Mutrikun edo Donostian.



Donostiako MK ereduaren sustatzaileetako bat da Iker Alustiza. “Lehiakortasunaz gaindiko balioetan azpimarra jarri eta kirola irisgarriago egin nahi dugu”, esan digu, “aintzat hartuta ekonomikoki zaurgarriak direnak, baina baita ezaurgarri fisiko edo psikikoengatik kirol normalizatutik kanpo geratzen direnak ere”.

Gipuzkoako hiriburuan, 2021az geroztik bi eskola kirol eredu dauke indarrean, programa tradizionala batetik (E1), eta MK Donostia bestetik, hasieran E2 gisa ezaguna zena, hainbat eskolak abiarazia (Jakintza, Amassorrain, Ibai, Zurriola, Orixe, Aitor eta Intxaurren), Foru Aldundiaren bultzadarekin. Ohiko ereduak sustatu nahi dituen balioak ditu oinarri proiektuak, baina pauso bat harago joan nahi dute, Iker Alustiza gizarte hezitzaile eta Ibai ikastolako guraso antiguotarrak azaldu digun moduan. Urte hasierak ekarritako kalapita baino lehen, hortaz, ekimenak denboratxoa zeraman martxan, are

donostiarrek eredutzat hartu dituzten Oarsoaldea eta Buruntzaldean. Gaur egun 10-12 eskola dira MK taldean, aurrerago aipatuez gain Herri Ametsa, Aiete, Ikasbide, Amara Berri eta Igeldo.

Donostia, Irun, Oiartzun, Andoain, Eibar, Bergara... Errealitateak baditu milaka aurpegi. Bergaran, adibidez, lehen hezkuntzako hiru ikastetxeen artean proiektu bateratua jarri zuten abian; eta antzera Zumarraga, Urretxu eta Legazpin, hurbiletik ezagutzen dugun kasu bat gehitzearren. Hiru herriotako bost ikastetxeetako hurrek bakoitzak berean “entrenatzen” dute astean zehar, eta larunbat goizean elkarren kontra aritzen dira batzuetan (futbola, eskubaloia, saskibaloia...), eta nahastuta besteetan (pilota, herri kirolak, ziklismoa...). Batetik bestera autobusean mugitzen dira ume denak elkarrekin, kuotaren parte bat horretara bideratzen da; zatirik handiena Eskola Kirol programa kudeatzen duen enpresak jasotzen du, zeinak hezitzaileak kontratatzen dituen, adibidez.

Auzitegi Nagusiaren ebazpena plazaratu aurretik ere, hainbat gauza aldatu beharra zegoela iritzita, Urola Garaiko Eskola Kirol Kontseiluak prozesu parte-hartzailea zuen abian, eta ikasturtea hastearekin bat gurasoak gonbidatu dituzte gaur arte egindakoak eta aurrera begirakoak ezagutzera. Aurkezpenean izan dira hiru ikastetxeetako ordezkariak, eta Zumarragako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol teknikari bana. Agerikoa da epaiak lanerditan harrapatu dituela eta zailantza ugari dagoela etorkizun hurbilak zer ekarriko, kontziente diren arren izen-emate gutxiago izango dela, “agian heren bat gutxiago”, Diputazioko teknikari Oihana Zunzunegik esan duenez. Pasa den ikasturtean umeen %65 inguruk (17.545) hartu zuen parte Multikirol programan; horietatik 11.283 klub batean ere ari ziren.



“MK BARRUAN ARITZEN DIRENEAN ERE, NON, ESATERAKO, HEZITZAILEEK JARRAIBIDE ZEHATZAK DITUZTEN, UMEAK HORRETARA LERRATZEN DIRA: GOLA SARTZEA BESTERIK EZ DUTE BURUAN, TREBEENEK PAPER BAT BETETZEN DUTE ETA HAIN ABILAK EZ DIRENEK BESTE BAT, NESKA ETA MUTIKOEN ARTEKOAK... HAU BESTE GAUZA BAT DELA IKASI BEHAR DUTE, BAITA GURASOEK ERE”

IKER ALUSTIZA, MK DONOSTIA

Beste hainbat gauzaren artean, hezitzaile edo monitoreen “kualifikazioa” eta haien “lan baldintzak” hobetzeko lanean jarraituko dutela berretsi du Foru Aldundiak. Aurreko ikasturtean aritu ziren 3.200 begiraleetatik, laurdena inguru nolabaiteko ordainsaria jasotzen zuten boluntarioak ziren; diputazioaren asmoa da “guztiei begirale lana aitortu eta haien egoera erregularizatzea”, eta horretarako baliabideak jarriko ditu ikastetxeen esku.

UMEEN POZ AURPEGIAK

Futbolak eta saskibaloia indar handia dute Donostian ere, eta hirugarren kirol bat gehitzekotan eskubaloia aipatuko luke Alustizak. MK ekimenak eskaintza zabaltzea du xede, baina ez hori bakarrik: “Haratago joan nahi genuen, lehiakortasunaz gaindiko balioetan azpimarra jarri eta kirola irisgarriago



MK DONOSTIA



ZARAUTZ GUKA



MK DONOSTIA



ESKOLAKIROLA.EUS



TIMA MIRO SHNICHENKO/ PEXELS



EUSKADIKO KARATE FEDERAZIOA

egin, aintzat hartuta ekonomikoki zaugarrienak direnak, baina baita ezaugarri fisiko edo psikikoengatik kirol normalizatutik kanpo geratzen direnak ere”.

“8-12 urte bitarteko umeez hitz egiten ari gara, oraindik haurrak dira, eta guk eskola kirola ulertzen dugu batez ere garapen-prozesu bat bezala, non balore batzuk irakatsi eta harremanak landuko diren”, azaldu digu. “Haur orok izan behar du horretarako aukera; ez da guraso batzuen kapritxoa –nonoiz leporatu diguten moduan–, mundu mailan onartutako eskubideez ari gara. Galdera da: zein eredu nahi dugu Donostiarako? Gure nahia ez da bazterrak nahastea, erronka edo behar batzuetatik abiatuta urratsak ematea baizik, administrazioekin elkarlanean”.



**MUTRIKUN, HERRIKO
ERAGILEEK (UDALAK,
KLUBEK, IKASTETXEEK...)
BAT EGIN DUTE
ESKOLA KIROLAREN
OHIKO EREDUA
MANTENTZEAREN ALDE**

Alustizak uste du adin txikikoak kirol mailaren arabera bereizteak, adibidez, zentzua izan dezakeela 14-15 urteko nerabeez ari bagara –“gogorra izan daitekeela ukatu gabe”–, baina ez 8-12 urte bitarteko umeen kasuan. Kirol batzuetan desberdintasunak areago nabarment-

zen direla-eta, futbolera egin du jauzi elkarrizketak. Alustizak aitortu digu futbolearen sarri jokatu eta zale amorratua dela: “Baina ohartu naiz MK barruan aritzen direnean ere, non, esaterako, hezitzaileek jarraibide zehatzak dituzten, umeak horretara lerratzen direla: gola sartzea besterik ez dute buruan, trebeenek paper bat betetzen dute eta hain abilak ez direnek beste bat, neska eta mutikoen artekoak... Hau beste gauza bat dela ikasi behar dute, baita gurasoek ere”.

Jokalari guztien parte hartzea bultzatzeko, hezitzaileek erronkak proposatzen dizkiete, aurkariaren atera jaurti aurretik baloia taldekide orok ukitzea, esaterako, edo gola ahalik eta gehienek sar dezaten saiatazea, “kontua ez delako bai ala bai irabaztea” edo “parekoa makurraraztea”, hamabost eta hutseko emaitza batek dakarren guztiarekin. Baloia ia eman ere egiten ez dion umeak bat-batean gola sartu eta haren poz aurpegia ikustea zein ederra den kontatu digu, motibazioari eusteko hezitzaileek jokatzen duten paperaren erakusgarri. Hezitzaileak aipatuta, MK barruan trebakuntza-saioak

jaso ohi dituzte, haur eta nerabeen kontrako indarkeriaren edo harreman osasuntsuen inguruan, adibidez. “Esaten diegu umeak ez direla zigortu behar, eta ez egoteko uneoro mugikorrari itsatsita, gatazkak kudeatzen jakin behar dute...”, dio Alustizak: “Monitoreak izan dezake sekulako kurrikuluma, baina kontziente izan behar du haurrentzat eredu dela eta motibatu egin behar dituela; atzean enpresa bat dagoenean ere hori ez dago bermaturik”.

Ikastetxeetako bakoitzak kontratatzen ditu bere hezitzaileak, eta eskolez kanpoko bi koordinatzaile nagusien lana den artean ordaintzen dute. “Haiek aritzen dira batez ere klub eta federazioekin hartu-emanen, jarduera bereziak antolatzen Zubietan (hockey), Aieten (errugbia)...”. Triatloia egin dute Kontxan, patinetan aritu dira Saguesen, herri kirolak Trinitate plazan, orientazioa Urgullen... Kirolaren bitartez ere erai-ki daiteke herria.

GORA BEGIRA

Donostian, eta beste zona batzuetan ere gertatuko da, filosofia edo helbu-

ruei dagokienean bada alderik futbol klubaren artean. Berez, diputazioak markatzen du kirol eskolek laugarren urtean –umeek 12 bat urte dituztenean– sor dezaketela errendimendutaldea, orduan bereiz daitezkeela A, B, C multzoetan. “Mingarria izanik ere, geroz eta beranduago banatu, hobeto”, Alustizak dioenez: “Batzuei ziurrenik ez zaie futbola interesatuko, lagunekin egon nahi dutelako hasi dira; normala da, denborarekin topatuko du bakoitzak bere tokia”. Klub batzuk, ordea, anbiziotsuagoak dira eta ia lehen urtetik sailkatzen dituzte umeak. “Horretara daude eta ikusten da; nahiz eta araudiak esan futbol eskoletan entrenamendu-saio bakarra izan dezaketela as-tean, bi edo hiru ere egiten dituzte batzuek. Gero, noski, ikusten duzu zure semearen partida bat Donosti Cup moduko txapelketa batean eta pentsatzen duzu, ‘joder, ze onak diren horiek’, baina entrenatzaileak zein jarrera duen ikusita ohartzen zara atzean egon daitekeenaz, eta...”.

Gurasoez ere –melo ederra zabaldu dugu– luze aritu gara Alustizarekin, eta kontatu digu euren umeentzat

Haurren interesak erdigunean

Mutrikun, herriko eragileek bat egin dute Eskola Kirolaren ohiko eredua mantentzearen alde. Udaleko alderdi politiko guztiek, kirol klubek, multi-kirol programaren ordezkariak... urteak daramatzate mahaiaren bueltan biltzen, eta “erraza” izan da Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurrean bestelako herri-itun bat adostea, udaleko Kirol teknikari Mikel Mariezkurrenak dioenez. “Naturaltasunez atera zaigu”, kontatu zuen Euskadi Irratian, eragile guztien arteko adostasuna nabarmentzearekin bat.

15-20 urte daramate bidea egiten, lehiakortasuna eta espezializazio goiztiarra gaingiditzen dituen eredua-

ren alde. “6-12 urteko umeek ari gara, haien ongizate eta garapen integral eta osasuntsurako, garrantzitsua da jarduera desberdinak egitea, ahalik eta esperientzia gehien izatea, jolastu eta ongi pasatzea...”, zioen. Mutrikuko Udalak gaiaren bueltako oharra plazaratu zuen ekainaren 10ean bere webgunean: “Udalak eta herriko kirol eragile nagusiek Eskola Kirolaren Herri Ituna sinatu dute. Sinatzaileek konpromisoa dute jarduera fisiko eta kirol hezigarri, osasungarri eta berdinzale bat garatzeko, haurren interes goren erdigunean jarrita”.

“Denok sinesten dugu horretan, bai udalak, bai klubek, baita guraso elkar-

teek ere”, adierazi du Mariezkurrenak. Ikasturte berrian ere, beraz, kirol elkar-teetako batean izena eman nahi duen umeak Eskola Kirolean parte hartu beharko du, “herriko interes orokorraren alde eginez”. Kirol elkarteak entitate pribatuak dira, haien araudi propioak beharren arabera egokitu ditzakete eta, hartara, eurak izango dira –eta ez diputazioa– baldintza hori betearaziko dutenak. Mutrikutik hurbil, Lekeitio (Bizkaia), udalak berriro egin du Eskola Kirol hitzarmena, besteak beste “herri hezitzailea” izateko helburua betetzen laguntzen duelako. Bietan aipatu dute “herria”, kirolak ekarpen positiboa egin dezakeela sinetsita.

klub bat edo beste aukeratzen dutela batzuek, “gorago” –Realera, pentsa li-teke– iristeko aukera handiagoa du-telakoan. Eta gogoratu gara Bizkaitik hurbil dagoen herri gipuzkoar bateko aitaz, umea “beste aldeko” futbol klub batean sartu zuena aurrera egiteko baldintza hobeak eskaintzen zitue-lakoan, kirol eskolaren kateetatik li-bre. “Zilegi da, baina zer nahi dugu seme-alabentzat? Gure hautua izan da, batetik, 8-12 urte bitartean umea bere testuinguru naturalean egon dadila, gozatu dezala, jolastu, experi-mentatu... horretatik ikasten da. Lehia, exijentzia eta gainerakoak etorriko dira geroxeago, jakitun garen arren gizartean oso txertaturik daudela”.

ELITEA IMITATZEN DUEN EREDUA

Santanderreko Racing taldean ari den 12 urteko jokalaria fitxatu du Realak, Irungo Mariñongo 12 urteko alebina Athleticek, Santutxun ari den 11 urteko aurrelaria Villarreal-ek, EDM San Blaseko 7 urteko umea Real Madrilek... Badirudi ispilu di-ren goi mailako klubentzat umeak


ere merkantzia direla, eta horrekin oso kritikoa da Alustiza, onartzen duen arren Realak –klub horretako bazkidea da bera– esango balio 10 urteko semea fitxatu nahi duela, nekez erantzungo liokeela ezetz, nahiz eta gogoeta egingo lukeen: “Benetan nahi dut umea gurpil ho-rretan sartu?”.

Real aipatuta, “harrobia” kalte-tuko zuela-eta mesfidantzaz egin zion aurre hasieran Gipuzkoako Es-kola Kirol ereduari, baina denbora-rekin jarrera apaldu eta hura defen-datzerira iritsi da. Martxoaren 20an Batzar Nagusietan egin zen ponent-zian Realeko harrobi-futboleko zu-zendari Luki Iriartek ere hartu zuen parte. Haren hitz hartzearen goibu-ruak –*Multikirol praktikaren eta es-pezializazio goiztiarra atzeratzearen justifikazioa, errendimenduaren ikus-pegitik (Real Sociedad) eta indarrean den araudia aintzat hartuta*– auzia-ren gaineko klubaren iritzia labur-biltzen du. “Kirol eta ariketa desber-dinak praktikatzek umeen garapen integrala bermatzen du”, adierazi

zuen, eta gaineratu EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiak multikirolaren derrigortasuna indargabetzen duela, baina ez haren “filosofia” edo “balio hezitzailea”. Iriartek uste du “oso zai-la” dela umeen artean lehiakortasu-na ezabatzea, eredia egokitzerik ba-dagoen arren, “lehiakorra izan dadin, baina soilik neurri batean”.

Gutxi-asko, elitea imitatzen duen eredurantz egiten du klub ugari –gezurra litzatekeen arren eskola kirolak oinarritzat duen “umearen ongizatea” aintzat hartzen ez dutela esatea–, eta guraso askok begi onez ikusten du hori. Multikirol progra-maren bueltako eragileei dagokie sustatu nahi dituzten balioetan sa-kondu eta umeak motibatuko dituen programazioa osatzea, ez klub-aurka baizik eta haien bidelagun, non diziplina minoritarioek espazio eta tratamendu duina izango duten, gazteek aukera izan dezaten gerora ordainduz bakarrik egin ahal izan-go dituzten kirol ahalik eta gehien probatzeko. Behar hori nabarmendu besterik ez du egin epaiak. ●

Gipuzkoako “Emaitza onak”



Espezializazioa, bere garaian, dio Gi-puzkoako Eskola Kirol programaren printzipioetako batek: “Foru Aldun-diak haurrak babesten ditu kirol-errendimenduan goizegi presionatu ez ditzaten, eta hainbat erakunderen gomendioak jarraitzen ditu, osasu-naren gaineko ondorio kaltegarriak, gaitasunik txikiak dituztenen baz-terkeria edota goiz egindako fitxake-tek dakarten deslokalizazioa saihe-s-teko. Ez dago oinarri zientifikorik lehenago espezializatzeari esker ta-lentu gehiago sortzen direla esate-ko, eta Gipuzkoako emaitzek berrets-i egin dute hori”.

“Gipuzkoako emaitzak”. Zer esan nahi du zehazki horrek? Multikirol ere-duaren defendatzaileek kirol dizipli-na eta modalitate desberdinetan ari

diren emakume eta gizon kopurua nabarmendu dute, baita “oso ongi” funtzionatzen duen klub-sarea ere, edota kirolari olinpikoen kopuru eta lorpenak. “Azpiegiturak, kultura, erakundeen babes... horiek guztiak lagungarri dira, baina multikirol ere-duak ere badu zerikusirik”, Diputa-zioko Kirol teknikari ohi Iñaki Ugar-tebururen hitzetan.

Futbol Federazioko presidente Manu Diazek, bestalde, Eskola Kirol ere-duaren “emaitza objektiboak” izen-abizenekin zerrendatu ditu: Ordizia Rugby, Bera Bera, Pau Etxaniz, Kauldi Odriozola, Imanol Garciandia, IDK Euskotren, Maialen Chorrut, Nerea Izagirre, Irene Paredes, Elene Lete, Mikel Oyarzabal, Ander Barrenetxea, Martin Zubimendi.

LOREA ETXEBERRIA (KEA KIROLA EUSKARA AHOAN)

“Kirolaren bidez, umeek euskara plazerarekin lotzea nahi dugu”

Orain arte ez dugu aipatu, baina bada 6-12 urte arteko umeen kirol jarduerari –aisialdiari, oro har– lotuta dagoen eta azpimarratzea merezi duen beste osagai bat: hizkuntza erabilera. Zentzu horretan, euskararen arnasmune dira Eskola Kiroleko programak, lekuan lekuko berezitasunak gora-behera. Donostiako MK proiektuaren bueltako gurasoek,

esaterako, euskara “bereizgarri, ildo eta balore” dela esan digute. Eta antzekoak irakurri ditugu udal eta diputazioen webguneetan ere, eskola kirolaren printzipioen bueltan. Hain justu, “kirola euskaraz egitea” du helburu Nafarroa Beherean abiatu duten KEA ekimenak, “eskolatik kanpo, lehiaketarik gabe eta neska-mutikoak nahas”.

Ortzaizen sortua, KEA Kirola Euskara Ahoan elkarteak 2022an eman zituen aurreneko urratsak, Garazi-Baigorri aldeko ikastolako guraso talde batek hauspotuta. Haietako baten –Antton Seychal errugbi hezitzailearen– semea Garaziko klub batean ari zen, “eta kezkatua zen ikusten zuelako biziki zaila dela talde kirolean euskara bermatzea”, kontatu digu Lorea Etxeberriak, Ortzai-zeko ikastolako guraso eta KEA egitasmoaren sortzaileetako batek: “Anttonnek mezua igorri zuen, eta dozena erdi lagun bildu ginen”. Halaxe hasi ziren.

Landetako departamenduan badira kirol anitzaren ereduak lantzen duten elkarte pribatuak, eta haien jarduna ardatz hartuta jarri zuten KEA abian, euren helburu eta beharretara moldatuta. Orain arte, umeak klub batean ala beste-rik ez zen aritzen araututako kirolean, aparteko eskaintzarik apenas zegoen.

“Guk bakantzak baditugu aski usu, zazpi astez behin bi aste opor, eta epealdi bakoitzean kirol bat egiten dugu, bost orotara”, azaldu digu Etxeberriak. Ohi-tuta gaudenerako kirol bereziak dira: “Ez diegu inguruko elkartei itzala egin nahi. Klubetako jarduna eta gurea osagarriak dira, haur anitz etortzen da astelehenetan KEAra, eta gainerako egunetan klub batean aritzen dira”.

EUSKARAZ EGITEKO OHITURA SORTU

Trebatzaile euskaldunak topatzea zaila dela diote, eta hainbatetan gertatzen den moduan, euskalduna delarik ere, nahikoa dela taldeko ume bat erdalduna izatea guztiek frantsesez egiteko. Ohartu dira, gainera, nahiz eta haurrak ikastetxe berekoak izan, klub berean dabiltzanean eta han frantsesez egiten badute, ikastolara itzultzen direlarik horrek segitzen duela, euren artean erdaraz egingo dutela. Izan

futbola, saskibaloia, eskubaloia edo errugbia, egoera antzekoa da guztietan. “Pilotan ere euskara ez da segurtatua”, dio Etxeberriak.

KEAn bestelakoa da panorama. Elkarteak antolatzen dituen ekintzetan biltzen dira hainbat ikastolako umeak, eta bera ziur da euren arteko lehen harremanak euskaraz baldin badira, betiko atxikiko dutela. “Haur horiek kolegio berera joaten dira, Larzabalera, eta badakigu han fite frantsesera lerratzen direla usu. Bada, sinetsita nago KEAn ibili diren haurrek harremana euskaraz atxikiko dutela kolegiara heltzean ere, eta ez zaiela burutik pasako frantsesez mintzatzea. Jostatu, joko anitz esperimentatu, jende desberdinarekin gurutzatu... Hori guztia euskaraz egitean, euskaraz solasteko plazerarekin lotzen da, euskara plazerarekin lotzen dute”.

Aisialdi-eskaintzan frantsesak duen “indar handiagatik” euskara-



UDALTOP

ren egoera “hauskorra” dela dio, eta badakiela haiek ez dutela hizkuntza “salbatuko”, baina “arnasgune” direla hein handi batean. Zentzu horretan, Urola Garaiko Mankomunitateak (Gipuzkoa) 2022-2023 ikasturtean egindako ikerketa batek berretsi zuen Zumarragan, Urretxun eta Legazpin %78 ingurukoa dela euskararen erabilera eskola kirolean, kalean

%18koa denean adin tarte horretan; eta Zarautz, Orio edota Azkoitiko datuek ere joera bera erakusten zuten (herri horietan %84koa zen erabilera). “Euskararen arnasgune dira”, zioen Zumarragako Udalak, eta gaineratu funtsezkoa dela “entrenatzailleen jarrera”, bai ikasleengan baita gurasoengan eragiteko ere.



“SINETSITA NAGO KEAN IBILI DIREN HAURREK HARREMANA EUSKARAZ ATXIKIKO DUTELA KOLEGIORA HELTZEAN ERE”

LOREA ETXEBERRIA (KEA)



GAZTEEK BESTELAKOAN EGITEN EZ DITUZTEN KIROLAK IZANIK, GUZTIAK HUTSETIK-EDO HASTEN DIRA: “EZ DA HAUR TXAR EDO ONIK, EZ DUTE DENBORARIK HAIEN ARTEAN KONPARATZEKO ERE, JOKOA DENONDAKO BERRIA DA, DIO ETXEBERRIAK

EZ-OHIKO KIROLAK, DENAK PARETSU HASTEKO

Euskararena da KEA proiektuak duen kezka nagusietako bat. Bigarren, lehia “goizegi” txertatzen dela. “Kirol bat egiten denean, aski fite lehia eta partidak hasten dira eta haur guztiendako ez da ego-kia”, Etxeberriaren hitzetan: “Lehia hasten delarik kirola uzten dute, nahiz eta kirola bera maite duten”. Eta horrek lotura du erreportajearen hainbatetan aipatu dugun espezializazio goiztiarrarekin: “Haur batzuk enoatzen dira urte batez aktibitate berean arituz”.



KEA



ARRANOAK

Eta gehitzen du: “Hasten zirela-rik kirolean, biziki fite bereizten ziren neskak eta mutikoak. Kode hori hautsi nahi genuen”. Igeriketa ziurtagiria du berak, eta eskolak ematen ditu Makean: “Ez zait lehiatzea gustatzen, beraz, lehiakortasuna kendu nahi nuen, eta neskak eta mutilak nahastu; aniztasuna baita gure helburuetako bat. Beste kirol taldeetan, adin batetik goiti ez da gehiago jolas mistoa”. KEAn generoak markatzen ez diren joko eremu eta jostetak antolatzen dituzte, Ortzaizeko ikastolak sustatutako Bizi Jolas egitasmoaren helburuekin bat. Taldean aski orekatua da neska eta mutil kopurua. “Txikitan agian mutiko gehiago dago, eta bai, lehiaren arragatik-edo, 11 urte bete baino lehen uzten dute batzuek, baina paretsua da kopurua”. Dena den, klub batean jokatzeari jarraia lehiakorra agertzen duten umeak gai dira KEAn kirola beste modu batera ulertzeko, eta “bietan dabilta gustura”.

Leku batzuetan maiz bereizten diren bezala neskak eta mutilak,

bereizten dira jokalarik “on” eta “txar-rrak”. Ikasturte honetan KEAn egingo dituzte atletismoa, tchoukball, acro-gym, roller edo lineako patina, eta parkour. “Iaz kin-ball egin genuen, bada konpetizione pixka bat, baina talde osoak parte hartzen du, denek ukitu behar dute baloia...”. Gazteek bestelakoan egiten ez dituzten kirolak izanik, guztiak hutsetik-edo hasten dira, maila beretsua dute: “Ez da haur txar edo onik, ez dute denborarik haien artean konparatzeko ere, jokoa denondako berria da”. Astearen behin biltzen dira Ortzaizeko ezkerparetan –Herriko etxeak uzten die urririk; “inportantea da haren sustengua”–, 6-8 urteko umeak batetik, 9-11 artekoak bestetik. 50 bat dira guztira, Ortzaize, Baigorri edo Garaziko ikastoletakoak.

KEA BERRIAK ABIATZEKO ZAILTASUNAK

Boluntarioak dira KEAn ari diren guztiak. Antton Seychal errugbi hezitzailea eta Patxi Caliot mendiko gida aste guztiz aritzen dira lanean, eta

Ortzaizen bada helduen futbol klub txiki bat euskara duena ardatz, Arranoak. Haren partidak ikustera joan ohi dira ikastolako neska-mutikoak, eta hori positiboa dela dio Etxeberriak, eredu direlako umeentzat.

tarteka beste guraso batzuek laguntzen dute. Klubetan ere, izan pilotan, futbolearen edo errugbian, badira entrenatzaileak ordainduak direnak, baina gehienak –hein handi batean gurasoak– boluntarioak dira. “Zaila da guraso euskaldunak atzematea”, errepikatu digu Etxeberriak, eta pena puntuarekin gehitu: “Guk uste genuen KEA ateratzen genuelarik KEA txikiagoak sortuko zirela alboko herrietan, baina ez da gauzatzen”. Itsasuko Herriko Etxeak bazuen proiektu bat esku artean, ezin ordea animatzaile euskaldunik topatu. “Gure kasuan ez bezala, hezitzaileari ordaindu egingo zioten, astearen 2-3 orduko lana besterik ez zen, eta hala ere... Ez dakit aurrean lortuko duten”. ●



Erraldoi eta buruhandien karta jokoa

Familien karta jokoa eta Memoria jokoa.

*Euskal Herri guztitik etorritako erraldoi eta buruhandiak protagonista:
Erraldoi kirolariak, Sanferminetakoak, mitologikoak, ipuinetakoak...*

Prezioa **12€**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

 **ARGIA**